

Irakurri hurrengo errezeta. Gero, bete ezazu hutsuneak beheko hitzak erabiliz:

TXOKOLATEZKO TRIKUAK



Osagaiak

- gozogintzako txokolate beltza, 90 gramo
- txokolatezko fideoak, 150 gramo
- gurina, 140 gramo
- almendra hautsa, 30 gramo
- txokolate pralina, 90 gramo
- irina, 250 gramo
- azukre-hautsa, 70 gramo
- arrautza bat

- _____, ontzi batean ondo bigundu gurina.
- _____, azukre, almendra hautsa eta arrautza gehitu.
- Dena ondo nahastuta dagoenean gehitu irina eta jarraitu nahasten.
- Lortzen duzun orearekin egin pilota bat, bildu film paperean eta sartu _____ ordubete bat gogortzeko.
- Ordubete eta gero, atera oreka _____ eta pilota txikiak eginez eman triku forma. Sudurtxoa da ondo egin behar dena!
- _____ denak labean: 25 minutu, 190 gradu.
- Bitartean, urtu txokolatea Maria bainuan. Trikuak labetik atera eta pixka bat hozterakoan sartu sudurtxoa txokolatean.
- Segidan, txokolatea gogortu aurretik sartu _____ fideotan eta utzi lehortzen.
- _____, pintzel batekin egin txokolatearekin begitxoak eta sudur puntatxoa.
- Eta hozterakoan prest dituzu makina bat triku gozo zure gozamenerako! On egin!

hozkailean

Ondoren

Bukatzeko

hozkaileatik

Hasteko

txokolatezko

Sartu